



EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA
FEDERACIÓN VASCA DE BALONCESTO

LEHIAKETA-OINARRIEN

2024/2025 DENBORALDIA

FEDERACION VASCA DE BALONCESTO
EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

1.- GIZONEZKOEN LEHENENGO MAILAKO BERARIAZKO OINARRIAK

1.1.- EGITURA

Gizonezkoen Lehenengo Maila, Euskadiko eta Nafarroako Federazio Autonomikoen bidez hitzartuta dagoena, aipatutako federazio ezberdinetako 14 taldez osaturik dago:

- EBA Ligatik jaitsitako taldeak
- Aurreko denboraldian mantendutako taldeak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Mailatik eta Nafarroako Autonomika ligatik igotako taldeak, txapelketaren berariazko arauak jarraituz.

1.2.- JOKATZEKO MODUA

1.2.1.- Liga Erregularra

Lehiaketan buelta bikoitzeko sistema aurrera eramango da, talde guztiek elkarren aurka jokatuz (26 jardunaldi).

1.2.2.- Sailkapen fasea

Egoerak:

A- Fase hau kopa sistemaren arabera jokatuko da liga erregularrean 2. eta 5. postuetan geratu diren taldeen artean, beti ere kopako txapelduna postu horien artean sailkatu delarik. Kasu horretan, Kopako txapeldunak Liga Erregularreko sailkapeneko postuari eutsiko dio.

B- Fase hau kopa sistemaren arabera jokatuko da liga erregularrean 2. eta 4. postuetan geratu diren hiru taldeen artean, beti ere kopako txapelduna liga erregularreko 6. eta 8. postuan geratu delarik.

Fase honetako neurketa guztiak, zelai berean, ondoz ondoko ordutegi eta lehiaketako **ordutegi-sistema** kontuan hartuz jokatu behar dira.

Parekatzeak hurrengoak dira:

Lehenengo jardunaldia:

A Egoera:

- Finalerdi 1: denboraldiko 2. sailkatua – liga erregularreko 5. sailkatua
- Finalerdi 2: liga erregularreko 3. sailkatua – liga erregularreko 4. sailkatua

B Egoera:

- Finalerdi 1: denboraldiko 2. sailkatua – kopako irabazlea
- Finalerdi 2: denboraldiko 3. sailkatua – denboraldiko 4. sailkatua

Bigarren jardunaldia

- Finala: finalerdi 1eko irabazlea – finalerdi 2ko irabazlea

Fase honetako epaileak, talde parte-hartzaileen kontura izango dira (talde bakoitzak bere gain hartuko du jokatzeko duen partida bakoitzeko arbitraje-kostuaren % 50).

Fase honetako antolaketa, hurrengo irizpideen arabera emango da:

1. - Kopako txapelduna liga erregularreko 2. eta 5. postuetan geratzen bada, sailkapen fasea antolatu eta bertan parte hartuko du.
- 2.- Kopako txapelduna liga erregularreko 6. ~~eta~~ 8. postuetan geratzen bada, liga erregularreko 2. postuan geratu den taldea izango da sailkapen fasearen antolatzailea.

Antolatzen duen taldeak antolamendu baldintzak (zelai bera, ondoz ondoko ordutegia, lehiaketako ordutegi-sistema, 200 pertsonako gutxieneko edukiera eta megafonia) betetzeko gai ez izatekotan, antolaketa hurrengo sailkatuaren eskuetara igaroko da.

1.3.- IGOERAK ETA JAITSIERAK

Liga erregularreko lehen sailkatu zuzenean EBA Ligara igoko da.

Sailkapen Faseko irabazleak, EBA Ligako Igoera Fasean parte hartuko du, Gaztela eta Leonekin eta Galiziarekin batera.

Liga erregularreko lehen postuan sailkatuta dagoen taldeak mailaz igo ezin badu, edo Euskal Saskibaloiko Federazioari mailaz igo nahi ez duela jakinarazten badio, bere postua Liga Erregularreko sailkapena kontuan hartuta beteko da.

Sailkapen-faseko irabazleak Euskadiko Saskibaloiko Federazioari jakinarazten badio, fasea amaitu eta hurrengo bi egunetan, ez duela EBA Ligara igotzeko fasean parte hartuko, bere postua Liga Erregularreko sailkapena kontuan hartuta beteko da.

Azkeneko hiru sailkatuak (12. postutik 14. postura) Gizonezkoen Bigarren Mailara eta Gizonezko Autonomikara jaitsiko dira.

EBA Ligatik Gizonezkoen Lehenengo Mailara jaitsiera kasuen arabera, eta EBA Ligara igoerarik ematen ez bada, Gizonezkoen Bigarren Mailara eta Gizonezkoen Autonomikara jaitsiko diren talde kopurua areagotuko da EBA Ligako jaitsiera kopuruaren ondorioz.

1.4.- DATAK

<u>LIGA ERREGULARRA</u>			
<u>LEHEN ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2024ko urria	06, 13, 20 eta 27	2025eko urtarrila	26
2024ko azaroa	03, 10, 17 eta 24	2025eko otsaila	02, 09, 16 eta 23
2024ko abendua	01, 15 eta 22	2025eko martxoa	02, 09, 16, 23 eta 30
2025eko urtarrila	12 eta 19	2025eko apirila	06 eta 13
		2025eko maiatza	04
<u>SAILKAPEN FASEA</u>			
		2025eko maiatza	10 eta 11

1.5.- NEURKETEN ORDUTEGIA

Lehiaketa jardunaldiak, larunbateko 16:00tik 20:30tara eta igandeko 11:00tik 12:30tara eta 16:00tik 19:00tara emango dira, neurketei hasiera emateko gehienezko ordutegiak hauek direlarik.

Larunbatetan eta igandetan jokatuko diren neurketak zelai itxi eta estali batean aurrera eraman beharko dira, klimaren ondorioz partidurik ez atzeratzeko. Baldintza horiek bete gabe, ezin izango litzateke partidurik aurrera eraman.

Euskal Saskibaloï Federazioak gainerako Federazio Autonomiko parte-hartzaileekin batera, azkenengo jardunaldian emango diren neurketa guztietarako ordu amankomun bat hitzartuko du. Amaierako sailkapenean eraginik ez duten neurketak, ordu horretatik kanpo geratu ahalko dira.

1.6.- EGUTEGIEN PRESTAKETA ETA ZOZKETA

Egutegien prestaketa eta zozketa, 2024ko uztailaren 11n 10:00etan gauzatu da Euskal Saskibaloï Federazioaren bulegoetan.

1.7.- EPAIKETAK

Lehiaketa osoko epaiketak Euskal Saskibaloï Federazioak esleituko ditu, bai epaile nagusia zein epaile laguntzailea 3 Multzoko edo maila altuagokoak direlarik.

Epaiketak gastuak, neurketan parte hartzen duten bi taldeen artean proportzio berean banatuko da.

Zerrenda hau osatuko duten epaileak Euskadiko eta Nafarroako Saskibaloï Federazioetako Epaile Batzordeek proposatu dituzte, gutxienez lehiaketa hasi baino 20 egun lehenago.

Bertakoak ez diren epaileak eskatzerako orduan, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiako eta Nafarroako Epaile-Batzordeko kide den epaile batek ordezkatu beharko luke, ezin dira parte hartzen duten taldeen batzorde berdinekoak izan.

Bertakoak ez diren epaileak eskatze-prozesua Euskal Saskibaloï Federazioaren bidez egin beharko da, neurketaren data baino 15 egun lehenago. Eskatze-prozesua gauzatzeko, dagokion Lurralde edo Autonomia Federaziora bidalitako eskabide-inprimakiaren bidez (Euskal Federazioa osatzen ez duten Federazio ezberdinen kasutan).

Euskal Epaile-Batzordeak jardunaldi bakoitzeko epaileen izendapena, neurketak gauzatu baino 15 egun lehenago bidali beharko du.

Epaileen ordainagiriak Federazio Autonomiko bakoitzak ezartzen duen moduan ordainduko dira, etxeko taldea horren kargu eginez.

Lehiaketa eta epaile formakuntzaren jarraipena hobetzeko asmoz, etxeko taldeak partiduak grabatzea eskatzen da. Grabaketa horiek ez dira publiko egingo, baizik eta Euskal Batzordeko epaileen formakuntza eta jarraipena egin ahal izateko erabiliko dira bakarrik.

Hala ere, talde parte-hartzaile bakoitzak denboraldian zehar bere etxeko hiru neurketa gehienez grabatu beharko ditu, klub horrek bere etxeko partida guztiak grabatu eta bidaltzea erabaki ezean.

Klub bakoitzak dagokion OneDrive karpetan igo beharko ditu grabaketak, horiek ezabatuak edo baimenik gabe ez deskargatzeko. Grabaketak igotzeko esteka denboraldia hasi baino lehenago bidaliko da. Derrigorrez grabatu behar diren neurketak Euskal Saskibaloï Federazioak adieraziko ditu lehiaketan parte hartzen duten gainerako Federazio Autonomikoekin batera. Grabazioen datak partida jokatu baino gutxienez zazpi egun lehenago jakinaraziko dira.

Grabaketa, OneDriveko karpetara igo beharko da gehienez 4 fitxategitan (laurden bakoitzerako 1) neurketa bukatu eta 48 orduko epean, hala ere gomendagarria da fitxategi bakar batean igotzea. Ez da fitxategi lehenetsiaren formaturik ere ezartzen (mp4, mov, mts, avi...)

Lehiaketa-Oinarri honetako 6 zenbakidun eranskinean azaltzen diren arauak kontuan harturik egin behar da grabaketa. Arau hori bete ez gero, Diziplina Batzordeak zigortuko du Diziplina Araudiaren 45.G) artikulua aplikatuz, eta ez da kontuan hartuko bidalitako bideoen zenbaketan.

1.8.- IZENA EMATEKO DATAK

Lehiaketa honetan izena emateko gehienezko data, 2024ko uztailaren 5a izango da, 10:00ak baino lehen.

2024/2025 denboraldian parte hartuko duten taldeen klubek, kadete eta gazte mailetako taldeak izan behar dituzte.

Senior taldearen izen-ematearekin batera, senior taldearen sexu bereko kadete eta gazte mailako taldeen izen-emateak aurkeztu beharko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen duen senior taldearen ohiko jokalekua, klubeko kadete eta gazte mailan izen emandako taldeek ohiko jokalekua duten herri berean edo mugakidean egon behar da, modu honetan, senior taldea eta harrobiko taldeak kirol antolaketa berean integratuta egon daitezten.

Aurreko baldintzak bete ezean, senior taldeak maila galduko luke eta baita izen-emateko kirol eskubideak ere.

1.9.- AKTEN BIDALKETA ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA

Akta digitalaren erabilpenaren bidez, epaile nagusia izango da partidua ixteko eta aktaren bidalketaren prozesua aurrera eramateko arduraduna.

1.10.- JOKALARIAK

Jokalariei alta emateko azken eguna **2025eko otsaileko azken egun balioduna izango da, 14:00ak baino lehen**, haien kategoria, maila edo jatorria edozein dela ere. Ezin izango da lurralde-mailako jokalaririk ezarri, baldin eta haren lizentzia 2025eko otsaileko azken egun baliodunetik aurrera izapidetzen bada, 14: 00ak arte.

Denboraldian osoan zehar, taldeek gutxienez 8 jokalaria eta 12 gehienez izen eman beharko dituzte. Horien artean formakuntzako 8 jokalarik eta gehienez Erkidegotik kanpoko jokalaria batek izen eman behar dute.

“Formakuntza jokalaria” Araudi Orokorreko 84.5 artikuluko baldintzak betetzen duen jokalaria da.

1.11.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten klubek **2024ko uztailaren 5ean 10:00ak baino lehenago** izen eman beharko dute, **2.500 euroko** abala aurkeztu beharko du bere Federazioak edo banku-erakunde edo aurrezki kutxe batek, edo Euskal Saskibaloiko Federazioak ematen duen banku-kontuan diru-sartzea egin beharko du, bai kirol zein betebeharrak ekonomikoak bermatzeko helburuarekin.

Jokatzeko baloi ofiziala BADEN BX471 LEXUM modeloa da.

Jokorako baloi ofiziala aurkeztea nahitaezkoa da neurketa hasi baino lehenagoko beroketan eta atsedendietan (gutxienez 9 baloi, 4 talde bakoitzarentzat eta 1 epailearentzat).

Arau hau bete ezean Diziiplina Batzordeak zigortuko du Diziiplina Araudiaren arabera.

Lehiaketaren martxa onena izan dadin, neurketen egunen, orduen, zelaien etab.-en aldaketak, dagokion Lurralde edo Erkidego Federazioaren bitartez aurrera eramanez beharko da. Euskal Saskibaloiko Federazioak indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera erabakiko du.

Ondorioz tramite guzti hauek Euskal Saskibaloiko Federazioari dagozkio.

Diziiplina eta Apelazio-Batzordeak Euskal Saskibaloiko Federaziokoak izango dira.

Nafarroako Federazioko klubek, inskripzio-orriarekin batera, gai honen onarpen-agiria bidaliko dute.

1.12.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Bai Lurralde, Erkidego zein Estatuko federazioen batekin betebeharrak guztiak ordainduta ez dituzten klubek, ez dira onartuak izango; ondorioz, Lurralde eta Erkidego Federazioek talde bakoitzaren izen-emate dokumentuak puntu hori atxikitu beharko dute.

- Lehiaketa honetako entrenatzailearen batek era berean, Nafarroako edo Euskal Saskibaloï Federazioko gizon zein nesken selekzioen (kadete, haur, minibasket) baten entrenatzailea bada ere, lehiaketako partidua Autonomia Erkidegoen Selektzioen Txapelketarekin bat datorrenean, inplikaturako taldeak eskaturik, aurkariak neurketa horretako aldaketa baieztatu beharra dauka. Taldeak ezarritako epean neurketa jokatzeko datan ados jartzen ez badira, Euskal Saskibaloï Federazioko Lehiaketa-Batzordeak ezarritako du data, ordua eta zelaia.

- Lehiaketako azken sailkapena hurrengo erara zehaztuko da: 1etik 14ra liga erregularraren arabera.

- Azken sailkapen horren ordena kontuan hartuko da maila-igoerentarako (sailkapen-faseak esleitutakoa izan ezik), jaitsierentarako eta sailkapen-fasean parte hartzeko.

Euskal Saskibaloï Federazioaren Araudi Orokorreko 186 artikuluaaren arabera:

"Goragoko mailara igotzeko fasean parte hartzen duten klubek, kategoria horretan taldeak badituzte, ez dute inola ere azken fase horretan parte hartzeko eskubiderik izango, baldin eta goragoko mailako beren taldeak aldi berean igoera- edo jaitsiera-faserik jokatzen ez badu. "

Ondorioz, mailaz igo edo Sailkapen Fasean parte hartu ezin duen talde bat baldin badago, bere postua Liga Erregularreko hurrengo sailkatuak hartuko luke eta horrela hurrenez hurren (Kopako txapeldunarentzat ezarritakoak kontuan hartuko dira).

1.13.- SALBUESPENEZKO XEDAPENAK

Euskal Saskibaloï Federazioko Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio lehiaketa sistema egokitu edo aldatzeko, osasun arrazoiengatik, taldeei uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

GIZONEZKOEN LEHEN MAILAKO KOPA

Mailan izena eman duten talde guztiek parte hartuko dute.

JOKATZEKO MODUA

- **Final-zortzirenak**: 14 taldeak 7 kanporaketetan parte hartuko dute eta kanporaketa hori, zozketa puru bidez eta partidu bakar batera jokatu da etxeko talde gisa izendatutako zelaian. 7 talde irabazleak zozketa bidez zehaztuko den final-laurdenetara aurrera egingo dute eta horiekin batera, zozketa bidez aukeratuko den talde 1 gehiago (8 talde izateko). Final-zortzirenetako partiden ordutegiak jakinarazteko azken eguna 2024ko irailaren 10a izango da, 12:00etan. Ezer jakinarazten ez bada, jokoaren ohiko ordutegiak hartuko dira.

Datak: 2024ko irailaren 21/22an

Zozketa (final-zortzirenak eta final-laurdenak): 2024ko uztailearen 22an

Galtzaileen arteko zozketa: 2024ko irailaren 23an

- **Final-laurdenak**: 4 norgehiagokak partidu bakarrera jokatu dira etxeko talde bezala esleitutako zelaian. 4 irabazleak finalerdietara aurrera egingo dute. Final-laurdenetako partiden ordutegiak jakinarazteko azken eguna 2024ko irailaren 23a izango da, 18:00etan. Ezer jakinarazten ez bada, jokoaren ohiko ordutegiek hartuko dira.

Datak: 2024ko irailaren 28an eta 29an

- **Finalerdiak eta Finala**: Amaieretako parekatzeak zozketa hutsez egingo dira. Bi finalerdiak zelai berean eta ordutegi jarraituetan jokatu dira (goizez edo arratsaldez). Parekatzeak irabazten dituzten 2 taldeak sartuko dira finalean. Finalerdiak eta Amaierakoak antolatzea liga erregularreko talde sailkatuenari dagokio, 2024ko abenduaren 15eko jardunaldiko eztabaidaren ondoren.

Data: 2024ko abenduaren 28 eta 29an.

Zozketa: 2024ko urriaren 3an

Sailkapena:

- Kopako txapelduna liga erregularrean 2. eta 5. postuen artean geratuz gero, sailkapen fasean parte hartu eta era berean antolatu beharko du.

- Kopako txapelduna liga erregularrean 6. eta 8. postuan geratuz gero, sailkapen fasean parte hartuko du (hori dela eta, liga erregularreko 5. sailkatuan ez du sailkapen fasean parte hartuko).

- Kopako txapelduna liga erregularrean 9. postutik behera geratuz gero, ez du izango sailkapen fasean parte hartzeko aukerarik.

GIZONEZKOEN LEHEN MAILA

TALDE PARTE-HARTZAILEAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-
- 9.-
- 10.-
- 11.-
- 12.-
- 13.-
- 14.-

2.- GIZONEZKOEN BIGARREN MAILAKO BERARIAZKO OINARRIAK

2.1.- EGITURA

Gizonezkoen Bigarren Maila EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOko Federazio Autonomikoko 14 taldez osaturik dago, hurrengo taldeek parte hartzen dute

- Aurreko denboraldian Gizonezkoen Lehen Mailatik jaitsitako taldeak
- Aurreko denboraldian mantendutako taldeak.
- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Txapelketetatik igotako taldeak.

2.2.- JOKATZEKO MODUA

2.2.1.- Liga Erregularra

Lehiaketan buelta bikoitzeko sistema aurrera eramango da, talde guztiek elkarren aurka jokatzuz (26 jardunaldi).

2.2.2.- Sailkapen Fasea

Fase hau Kopako sistema bezala jokatu da, 2. eta 5. postuen artean kokatutako lau taldeen artean.

Parekatzeak hurrengoak izango dira:

Lehenengo jardunaldia

- Finalerdi 1: Liga Erregularreko 2. sailkatua– Liga Erregularreko 5. sailkatua
- Finalerdi 2: Liga Erregularreko 3. sailkatua – Liga Erregularreko 4. sailkatua

Bigarren jardunaldia

- Finala: Finalerdi 1eko irabazlea – Finalerdi 2ko irabazlea

Fase honetako epaileak, talde parte-hartzaileen kontura izango dira (talde bakoitzak bere gain hartuko du jokatzeko duen partida bakoitzeko arbitraje-kostuaren % 50).

Fase honetako antolaketa liga erregularreko 2. sailkatuari emango zaio.

Antolatzen duen taldeak antolamendu baldintzak (zelai bera, ondoz ondoko ordutegia, lehiaketako ordutegi-sistema, 200 pertsonako gutxieneko edukiera eta megafonia) betetzeko gai ez izatekotan, antolaketa hurrengo sailkatuaren eskutara igaroko da.

2.3.- IGOERAK ETA JAITSIERAK

Liga erregularreko lehenengo sailkatua eta sailkapen faseko irabazlea Gizonezkoen Lehenengo Mailara zuzenean igoko dira.

Taldeetakoren batek ezin badu mailaz igo Gizonezkoen Lehen Mailan talde bat duelako, bere postua Liga Erregularreko sailkapena kontuan harturik beteko da.

Nafarroako Multzo Autonomikoko lehen sailkatua Gizonezkoen Lehen Mailara zuzenean igoko da.

Gizonezkoen Lehen Mailan erabiltzeko toki bat badago, Araudi Orokiorraren 191. artikulua arabera beteko dira. Azpiko kategoriako azken mailatik hurrengo postuan sailkatutako taldea zehazteko, honako ordena kontuan hartuko da:

1. Nafarroako Multzo Autonomikoko 2. sailkatua
2. Euskadiko Multzo Autonomikoko 3. sailkatua (Liga Erregularrean hoberen sailkatutako taldeari egokituko zaio plaza hori, Gizonezkoen Lehen Mailara igotako bi taldeak kanpoan utzita).
3. Horrela hurrenez hurren

Azkeneko 4 sailkatuak (11-14 postuak) Lurraldeko Senior Ligara jaitsiko dira.

Gizonezkoen Lehen Mailatik jaitsitako taldeen kopurua hiru talde baino gutxiagokoa bada, jaitsieren kopurua proportzionalki murriztuko da kategoria honetan.

Gizonezkoen Lehen Mailatik jaitsitako taldeen kopurua hiru talde baino gehiagokoa bada, jaitsieren kopurua proportzionalki areagotuko da kategoria honetan.

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Senior Lurralde ligetako txapelkunak igoko dira lehiaketa honetara (3 talde).

2024/2025 denboraldirako gutxienez 14 talde bete behar izanez gero, mailaz igotzeko edo uko egiteko aukeraren ondorioz, hurrengo lehentasun hauek kontuan hartuko dira:

- A) 2024ko ekainaren 13a baino lehen, 13:00ak baino lehen, bere lurraldeko sailkapenik onena duena igoko da. Lurralde horretako talderik inskribatu ezean, ez da bat ere igoko.
- B) Lurralde Txapelketaren bateko talderen bat igotzen ez bada, plaza hori hurrengo ordenaren arabera beteko da:
 1. Lurralde horretatik jaitsi diren taldeak, baldin eta ondoen sailkatuak baleude.
 2. Gizonezkoen Bigarren Mailako sailkapen nagusian ondoen sailkatuak, horrela hurrenez hurren, azken sailkapenari jarraituz.

Plaza hutsen bat badago oraindik, eta eskabide-kopurua plaza hutsen kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da Euskadiko Saskibalo Federazioan.

2.4.- DATAK

<u>LIGA ERREGULARRA</u>			
<u>LEHEN ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2024ko urria	06, 13, 20 eta 27	2025eko urtarrila	26
2024ko azaroa	03, 10, 17 eta 24	2025eko otsaila	02, 09, 16 eta 23
2024ko abendua	01, 15 eta 22	2025eko martxoa	02, 09, 16, 23 eta 30
2025eko urtarrila	12 eta 19	2025eko apirila	06 eta 13
		2025eko maiatza	04
<u>SAILKAPEN FASEA</u>			
		2025eko maiatza	10 eta 11

2.5.- NEURKETEN ORDUTEGIA

Jardunaldia jokatzeko ordutegia larubateko 16:00tik 20:30ra eta igandeko 11:00tik 12.30ra eta 16:00tik 19:00ra, partiduak hasteko beranduenezko ordutegiak direlarik.

Larunbatetan eta igandetan jokatu diren neurketak zelai itxi eta estali batean aurrera eraman beharko dira, klimaren ondorioz partidurik ez atzeratzeko. Baldintza horiek bete gabe, ezin izango litzateke partidurik aurrera eraman.

Euskal Saskibaloia Federazioak azkenengo jardunaldian emango diren neurketa guztietarako ordu amankomun bat hitzartuko du. Amaierako sailkapenean eraginik ez duten neurketak, ordu horretatik kanpo geratu ahalko dira.

2.6.- EGUTEGIEN PRESTAKETA ETA ZOZKETA

Egutegien prestaketa eta zozketa, **2024ko uztailaren 11n** 11:00etan gauzatuko da Euskal Saskibaloia Federazioaren bulegoetan.

2.7.- EPAIKETAK

Lehiaketa osoko epaiketak Euskadiko Saskibaloia Federazioko Arbitro Batzordeak izendatuko ditu, eta epaile nagusia zein laguntzailea 4. multzokoa edo goragokoa izango dira.

Epaileen joan-etorrien gastuak parte hartzen duten talde guztien artean erdibana hainbanatuko dira.

Zerrenda hau osatuko duten epaileak Euskadiko Saskibaloia Federazioko Epaile Batzordeak proposatuko ditu, gutxienez lehiaketa hasi baino 20 egun lehenago.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Batzordeetako epaileek parte hartzen duten taldeek bete beharko dituzte, parte hartzen duten taldeen batzorde berekoak ez direlarik.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak Euskadiko Saskibaloï Federazioan izapidetu beharko dira, gutxienez partidua jokatu eta 15 egun naturaleko epean, dagokion Lurralde Federazioaren bitartez horri zuzendutako eskabide-inprimakiaren bidez.

Euskadiko Epaile Batzordeak 15 egun lehenago bidali beharko dizkio Euskadiko Saskibaloï Federazioari jardunaldi bakoitzeko epaile-izendapenak.

Epaiketa -ordainagiriak Federazio Autonomiko bakoitzak ezartzen duen moduan ordainduko dira, eta etxean jokatzen duen taldearen kontura izango dira.

Lehiaketaren jarraipena eta epaile-prestakuntza hobetzeko asmoz, klubek, nahi izanez gero, etxean jokatzen dituzten partida guztiak grabatzea eskatzen da. Grabazio horiek ez dira publikoak izango, eta Euskal Epaileen Batzordeko epaileen jarraipena eta prestakuntza egiteko baino ez dira erabiliko

Hala ere, talde parte-hartzaile bakoitzak bere neurketa gehienez hiru aldiz grabatu beharko du lokal gisa denboraldian zehar, klub horrek bere partida guztiak lokal gisa grabatu eta bidaltzea erabaki ezean.

Klub bakoitzak dagokion OneDrive karpetan igo beharko ditu grabaketak, horiek ezabatuak edo baimenik gabe ez deskargatzeko. Grabaketak igotzeko esteka denboraldia hasi baino lehenago bidaliko da. Derrigorrez grabatu behar diren neurketak Euskal Saskibaloï Federazioak adieraziko ditu lehiaketan parte hartzen duten gainerako Federazio Autonomikoekin batera. grabazioen datak partida jokatu baino gutxienez zazpi egun lehenago jakinaraziko dira.

Grabaketa, OneDriveko karpetara igo beharko da gehienez 4 fitxategitan (laurden bakoitzetik 1) neurketa bukatu eta 48 orduko epean, hala ere gomendagarria da fitxategi bakar batean igotzea. Ez da fitxategi lehenetsiaren formaturik ere ezartzen (mp4, mov, mts, avi...)

Lehiaketa-Oinarri honetako 6 zenbakidun eranskinean azaltzen diren arauak kontuan harturik egin behar da grabaketa. Arau hori bete ez gero, Diziplina Batzordeak zigortuko du Diziplina Araudiaren 45.G) artikulua aplikatuz, eta ez da kontuan hartuko bidalitako bideoen zenbaketan.

2.8.- IZENA EMATEKO DATAK

Lehiaketa honetan izena emateko gehienezko data, **2024ko uztailaren 5a izango da, 10:00ak baino lehen.**

2024/2025 denboraldian parte hartuko duten taldeen klubek, kadete eta gazte mailako taldeak izan behar dituzte.

Senior taldearen izen-ematearekin batera, senior taldearen sexu bereko kadete eta gazte mailako taldeen izen-emateak aurkeztu beharko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen duen senior taldearen ohiko jokalekua, klubeko kadete eta gazte mailan izen emandako taldeek ohiko jokalekua duten herri berean edo mugakidean egon behar da, modu honetan, senior taldea eta harrobiko taldeak kirol antolaketa berean integratuta egon daitezten.

Aurreko baldintzak bete ezean, senior taldeak maila galduko dute eta baita izen-emateko kirol eskubideak ere.

2.9.- AKTEN BIDALKETA ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA

Akta digitalaren erabilpenaren bidez, epaile nagusia izango da partidua ixteko eta aktaren bidalketaren prozesua aurrera eramateko arduraduna.

2.10.- JOKALARIAK

Jokalariei alta emateko azken eguna **2025eko otsaileko azken egun balioduna izango da, 14:00ak** baino lehen, haien kategoria, maila edo jatorria edozein dela ere. Ezin izango da lurralde-mailako jokalaririk ezarri, baldin eta haren lizentzia 2025eko otsaileko azken egun baliodunetik aurrera izapidetzen bada, 14: 00ak arte.

Denboraldian osoan zehar, taldeek gutxienez 8 jokalaria eta 12 gehienez izen eman behar dute. Horien artean formakuntzako 8 jokalarik eta gehienez Erkidegotik kanpoko jokalaria batek izen eman behar dute.

“Formakuntza jokalaria” Araudi Orokorreko 84.5 artikuluko baldintzak betetzen duen jokalaria da.

2.11.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten klubek **2024ko uztailaren 5ean 10:00ak baino lehenago** izen eman beharko dute, **1.250 euroko** abala aurkeztu beharko du bere Federazioak edo banku-erakunde edo aurrezki kutxe batek, edo Euskal Saskibaloiko Federazioak ematen duen banku-kontuan diru-sartzea egin beharko du, bai kirol zein betebeharrak ekonomikoak bermatzeko helburuarekin.

Jokatzeko baloi ofiziala BADEN BX471 LEXUM modeloa da:

Jokorako baloi ofiziala aurkeztea nahitaezkoa da neurketa hasi baino lehenagoko beroketan eta atsedendietan (gutxienez 9 baloi, 4 talde bakoitzarentzat eta 1 epailearentzat).

Arau hau bete ezean Diziplina Batzordeak zigortuko du Diziplina Araudiaren arabera.

Lehiaketaren martxa onena izan dadin, neurketen egunen, orduen, zelaien etab.-en aldaketak, dagokion Lurralde Federazioaren bitartez aurrera eramane beharko da. Euskal Saskibaloiko Federazioak indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera erabakiko du.

Ondorioz tramite guzti hauek Euskal Saskibaloiko Federazioari dagozkio.

Diziplina eta Apelazio-Batzordeak Euskal Saskibaloiko Federaziokoak izango dira.

2.12.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Bai Lurralde, Erkidego zein Estatuko federazioen batekin betebeharrak guztiak ordainduta ez dituzten klubek, ez dira onartuak izango; ondorioz, Lurralde eta Erkidego Federazioek talde bakoitzaren izen-emate dokumentuak puntu hori atxikitu beharko dute.

- Lehiaketa honetako entrenatzailearen batek era berean Errioxako, Nafarroako edo Euskal Saskibaloiko Federazioko gizon zein nesken selekzioaren (kadete, haur, minibasket) baten entrenatzailea bada ere, lehiaketako partidua Autonomia Erkidegoen Selektzioen Txapelketarekin bat datorrenean, inplikaturako taldeak eskaturik, aurkariak neurketa horretako aldaketa baieztatu beharra dauka.

Taldeak ezarritako epean neurketa jokatzeko datan ados jartzen ez badira, Euskal Saskibaloï Federazioko Lehiaketa-Batzordeak ezarriko du data, ordua eta zelaia.

Lehiaketako azken sailkapena hurrengo erara zehaztuko da: 1etik 14ra **liga erregularraren** arabera.

Azken sailkapen horren ordena kontuan hartuko da maila-igoeretarako (sailkapen-faseak esleitutakoa izan ezik), jaitsieretarako eta sailkapen-fasean parte hartzeko.

Euskal Saskibaloï Federazioaren Araudi Orokorreko 186 artikuluaaren arabera:

"Goragoko mailara igotzeko fasean parte hartzen duten klubek, kategoria horretan taldeak badituzte, ez dute inola ere azken fase horretan parte hartzeko eskubiderik izango, baldin eta goragoko mailako beren taldeak aldi berean igoera- edo jaitsiera-faserik jokatzen ez badu. "

Ondorioz, mailaz igo edo Sailkapen Fasean parte hartu ezin duen talde bat baldin badago, bere postua Liga Erregularrean hurrengo sailkatuak hartuko luke eta horrela hurrenez hurren.

2.13- SALBUEZPENEZKO XEDAPENAK

Euskal Saskibaloï Federazioko Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio lehiaketa sistema egokitu edo aldatzeko, osasun arrazoiengatik, taldeei uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

GIZONEZKO BIGARREN MAILA

TALDE PARTE-HARTZAILEAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-
- 9.-
- 10.-
- 11.-
- 12.-
- 13.-
- 14.-

3.1- EMAKUMEZKO EUSKAL KOPA

3.2 - EMAKUMEZKOEN LIGA 2

3.3.- GIZONEZKO EUSKAL KOPA ACB

3.4.- GIZONEZKO EUSKAL KOPA LEB

3.5.- GIZONEZKO EUSKAL KOPA EBA

4.- EMAKUMEZKOEN LEHENENGO MAILAKO BERARIAZKO OINARRIAK

4.1.- EGITURA

Emakumezkoen Lehenengo Maila, Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako Federazio Autonomikoez dagoena, aipatutako federazio ezberdinetako 14 taldez osaturik dago:

- Emakumezkoen Liga 2tik jaitsitako taldeak
- Aurreko denboraldian mantendutako taldeak.
- Emakumezkoen Bigarren Mailatik igotako taldeak.

4.2. JOKATZEKO MODUA

4.2.1.- Liga Erregularra

Lehiaketan aurrera eramango den sistema, buelta bikoitzekoa izango da, talde guztiek elkarren aurka jokatuz (26 jardunaldi).

4.2.2.- Sailkapen fasea

Egoerak:

A- Fase hau kopa sistemaren arabera jokatuko da liga erregularrean 2. eta 5. bosgarren postuetan geratu diren taldeen artean, beti ere kopako txapelduna postu horien artean sailkatu delarik. Kasu horretan, Kopako txapeldunak Liga Erregularreko sailkapeneko postuari eutsiko dio.

B- Fase hau kopa sistemaren arabera jokatuko da liga erregularrean 2. eta 4. postuetan geratu diren hiru taldeen artean, beti ere kopako txapelduna denboraldiko 6. eta 8. postuan geratu delarik.

Fase honetako neurketa guztiak, zelai berean, ondoz ondoko ordutegi eta lehiaketako ordutegi-sistema kontuan hartuz jokatu behar dira.

Parekatzeak hurrengoak dira:

Lehenengo jardunaldia

A Egoera:

- Finalerdi 1: liga erregularreko 2. sailkatua– liga erregularreko 5. sailkatua
- Finalerdi 2: liga erregularreko 3. sailkatua – liga erregularreko 4. sailkatua

B egoera:

- Finalerdi 1: liga erregularreko 2. sailkatua – kopako irabazlea
- Finalerdi 2: liga erregularreko 3. sailkatua – liga erregularreko 4. sailkatua

Bigarren jardunaldia

- Finala: finalerdi 1eko irabazlea – finalerdi 2ko irabazlea

Fase honetako epaileak, talde parte-hartzaileen kontura izango dira (talde bakoitzak bere gain hartuko du jokatzeko duen partida bakoitzeko arbitraje-kostuaren % 50).

Fase honetako antolaketa, hurrengo irizpideen arabera emango da:

1. - Kopako txapelduna liga erregularrean 2. eta 5. postuetan geratuz, sailkapen fasea antolatu eta bertan parte hartuko du.
- 2.- Kopako txapelduna liga erregularrean 6. eta 8. postuan geratuz, denboraldian 2. postuan geratu den taldea izango da sailkapen fasearen antolatzailea.

Antolatzen duen taldeak antolamendu baldintzak (zelai bera, ondoz ondoko ordutegia, lehiaketako ordutegi-sistema, 200 pertsonako gutxieneko edukiera eta megafonia) betetzeko gai ez izatekotan, antolaketa hurrengo sailkatuaren eskuetara igaroko da.

4.3.- IGOERAK ETA JAITSIERAK

Liga erregularrean sailkatutako lehen taldeak eta sailkapen-fasea irabazten duen taldeak parte hartuko dute Emakumezkoen Liga 2ra igotzeko azken fasean.

Bi taldeetako batek Emakumezkoen Liga 2ra Igotzeko Azken Fasean parte hartu nahi ez badu, Euskadiko Saskibaloiko Federazioak Sailkapen Fasea amaitu eta hurrengo 2 egunetan jakinarazi beharko du. Bere postua, Liga Erregularreko sailkapena kontuan harturik beteko da.

Iparraldeko Federazio Autonomikoen arteko akordioaren bidez (Galizia, Nafarroa, Asturias, Errioxa, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Euskadi), Emakumezkoen Liga 2ko igoera faserako sailkapenaren ordena hurrengoa da:

2024/25 Denboraldia

1. Errioxa/Nafarroa/Euskadi azpitaldeko 1. sailkatua
2. Asturias/Kantabria/Gaztela eta Leon/Galizia azpitaldeko 1. sailkatua
3. Errioxa/Nafarroa/Euskadi azpitaldeko 2. sailkatua
4. Asturias/Kantabria/Gaztela eta Leon/Galizia azpitaldeko 2. sailkatua

Azkeneko bi sailkatuak (13. eta 14. postuak) Emakumezkoen Bigarren Mailara jaitsiko dira.

Emakumezkoen Liga 2tik Emakumezkoen Lehenengo Mailara jaitsierak emanez gero, Emakumezkoen Lehen Mailara jaisten den talde kopuru bera jaitsiko da Emakumezkoen Bigarren Mailara.

4.4.- DATAK

<u>LIGA ERREGULARRA</u>			
<u>LEHEN ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2024ko urria	06, 13, 20 eta 27	2025eko urtarrila	26
2024ko azaroa	03, 10, 17 eta 24	2025eko otsaila	02, 09, 16 eta 23
2024ko abendua	01, 15 eta 22	2025eko martxoa	02, 09, 16, 23 eta 30
2025eko urtarrila	12 eta 19	2025eko apirila	06, 13 eta 27
		2025eko maiatza	04
<u>SAILKAPEN FASEA</u>			
		2025eko maiatza	03 eta 04

4.5.- NEURKETEN ORDUTEGIA

Lehiaketa jardunaldiak, larunbateko 16:00tik 20:30tara eta igandeko 11:00tik 12:30tara eta 16:00tik 19:00tara emango dira, neurketei hasiera emateko gehieneko ordutegiak hauek direlarik.

Larunbatetan eta igandetan jokatu diren neurketak zelai itxi eta estali batean aurrera eraman beharko dira, klimaren ondorioz partidurik ez atzeratzeko. Baldintza horiek bete gabe, ezin izango litzateke partidurik aurrera eraman.

Euskal Saskibaloiko Federazioak gainerako Federazio Autonomiko parte-hartzaileekin batera, azkenengo jardunaldian emango diren neurketa guztietarako ordu amankomun bat hitzartuko du. Amaierako sailkapenean eraginik ez duten neurketak, ordu horretatik kanpo geratu ahalko dira.

4.6.- EGUTEGIEN ZOZKETA ETA PRESTAKETA

Egutegien prestaketa eta zozketa, **2024ko uztailaren 11n** 12:00etan gauzatuko da Euskal Saskibaloiko Federazioaren bulegoetan.

4.7.- EPAIKETAK

Lehiaketa osoko epaileak Euskadiko Saskibaloiko Federazioak izendatuko ditu, eta epaile nagusia 3. multzokoa edo gorakoa eta laguntzailea 4. multzokoa edo goragokoa izango dira.

Epaileen joan-etorrien gastuak parte hartzen duten talde guztien artean erdibana hainbanatuko dira.

Zerrenda hau osatuko duten epaileak Euskadiko Saskibaloiko Federazioko, Nafarroako eta Errioxako Arbitro Batzordeek proposatuko dituzte, gutxienez lehiaketa hasi baino 20 egun lehenago.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako Batzordeetako epaileek parte hartzen duten taldeek bete beharko dituzte, parte hartzen duten taldeen batzorde berekoak ez direlarik.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak Euskadiko Saskibalo Federazioan izapidetu beharko dira, gutxienez partidua jokatu eta 15 egun naturaleko epean, dagokion Lurraldeko edo Autonomia Erkidegoko (Euskadikoak ez direnean) Federazioaren bitartez horri zuzendutako eskabide-inprimakiaren bidez.

Euskadiko Epaile Batzordeak 15 egun lehenago bidali beharko dizkio Euskadiko Saskibalo Federazioari jardunaldi bakoitzeko epaile-izendapenak.

Epaiketa-ordainagiriak Federazio Autonomiko bakoitzak ezartzen duen moduan ordainduko dira, eta etxean jokatzeko duen taldearen kontura izango dira.

Lehiaketaren jarraipena eta epaile-prestakuntza hobetzeko asmoz, klubek, nahi izanez gero, etxean jokatzeko dituzten partida guztiak grabatzea eskatzen da. Grabazio horiek ez dira publikoak izango, eta Euskal Epaileen Batzordeko epaileen jarraipena eta prestakuntza egiteko baino ez dira erabiliko.

Hala ere, talde parte-hartzaile bakoitzak bere neurketa gehienez hiru aldiz grabatu beharko du lokal gisa denboraldian zehar, klub horrek bere partida guztiak lokal gisa grabatu eta bidaltzea erabaki ezean.

Klub bakoitzak dagokion OneDrive karpetan igo beharko ditu grabaketak, horiek ezabatuak edo baimenik gabe ez deskargatzeko. Grabaketak igotzeko esteka denboraldia hasi baino lehenago bidaliko da. Derrigorrez grabatu behar diren neurketak Euskal Saskibalo Federazioak adieraziko ditu lehiaketan parte hartzen duten gainerako Federazio Autonomikoekin batera. Grabazioen datak partida jokatu baino gutxienez zazpi egun lehenago jakinaraziko dira.

Grabaketa, OneDriveko karpetara igo beharko da gehienez 4 fitxategitan (laurden bakoitzetik 1) neurketa bukatu eta 48 orduko epean, hala ere gomendagarria da fitxategi bakar batean igotzea. Ez da fitxategi lehenetsiaren formaturik ere ezartzen (mp4, mov, mts, avi...)

Lehiaketa-Oinarri honetako 6 zenbakidun eranskinean azaltzen diren arauak kontuan harturik egin behar da grabaketa. Arau hori bete ez gero, Diziiplina Batzordeak zigortuko du Diziiplina Araudiaren 45.G) artikulua aplikatuz, eta ez da kontuan hartuko bidalitako bideoen zenbaketan.

4.8.- IZENA EMATEKO DATAK

Lehiaketa honetan izena emateko gehienezko data, **2024ko uztailaren 5a izango da, 10:00ak baino lehen.**

2024/2025 denboraldian parte hartuko duten taldeen klubek, kadete eta gazte mailako taldeak izan behar dituzte.

Senior taldearen izen-ematearekin batera, senior taldearen sexu bereko kadete eta gazte mailako taldeen izen-emateak aurkeztu beharko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen duen senior taldearen ohiko jokalekua, klubeko kadete eta gazte mailan izen emandako taldeek ohiko jokalekua duten herri berean edo mugakidean egon behar da, modu honetan, senior taldea eta harrobiko taldeak kirol antolaketa berean integratuta egon daitezten.

Aurreko baldintzak bete ezean, senior taldeak maila galduko dute eta baita izen-emateko kirol eskubideak ere.

4.9.- AKTEN BIDALKETA ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA

Akta digitalaren erabilpenaren bidez, epaile nagusia izango da partidua ixteko eta aktaren bidalketaren prozesua aurrera eramateko arduraduna.

4.10.- JOKALARIAK

Jokalariei alta emateko azken eguna **2025eko otsaileko azken egun balioduna izango da, 14:00ak baino lehen**, haien kategoria, maila edo jatorria edozein dela ere. Ezin izango da lurralde-mailako jokalaririk ezarri, baldin eta haren lizentzia 2025eko otsaileko azken egun baliodunetik aurrera izapidetzen bada, 14:00ak arte.

Denboraldian osoan zehar, taldeek gutxienez 8 jokalaria eta 12 gehienez izen eman behar dute. Horien artean formakuntzako 8 jokalarik eta gehienez Erkidegotik kanpoko jokalaria batek izen eman behar dute.

“Formakuntza jokalaria” Araudi Orokorreko 84.5 artikuluko baldintzak betetzen duen jokalaria da.

4.11.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten klubek **2024ko uztailaren 5ean 10:00ak baino lehenago** izen eman beharko dute, **2.500 euroko** abala aurkeztu beharko du bere Federazioak edo banku-erakunde edo aurrezki kutxe batek, edo Euskal Saskibaloiko Federazioak ematen duen banku-kontuan diru-sartzea egin beharko du, bai kirol zein betebeharrak ekonomikoak bermatzeko helburuarekin.

Jokatzeko baloi ofiziala BADEN BX471 LEXUM modeloa da.

Jokorako baloi ofiziala aurkeztea nahitaezkoa da neurketa hasi baino lehenagoko beroketan eta atsedendietan (gutxienez 9 baloi, 4 talde bakoitzarentzat eta 1 epailearentzat).

Arau hau bete ezean Diziiplina Batzordeak zigortuko du Diziiplina Araudiaren arabera.

Lehiaketaren martxa onena izan dadin, neurketen egunen, orduen, zelaien etab.-en aldaketak, dagokion Lurralde edo Erkidego Federazioaren bitartez aurrera eramane beharko da. Euskal Saskibaloiko Federazioak indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera erabakiko du.

Ondorioz tramite guztie hauek Euskal Saskibaloiko Federazioari dagozkio.

Diziiplina eta Apelazio-Batzordeak Euskal Saskibaloiko Federaziokoak izango dira.

Nafarroako eta Errioxako federazioetako klubek, inskripzio-orriarekin batera, gai honen onarpen-agiria bidaliko dute.

4.12.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Bai Lurralde, Erkidego zein Estatuko federazioen batekin betebeharrak guztiak ordainduta ez dituzten klubek, ez dira onartuak izango; ondorioz, Lurralde eta Erkidego Federazioek talde bakoitzaren izen-emate dokumentuak puntu hori atxikitu beharko dute.

- Lehiaketa honetako entrenatzaileen batek era berean Errioxako, Nafarroako edo Euskal Saskibaloiko Federazioko gizon zein nesken selekzioen (kadete, haur, minibasket) baten entrenatzailea bada ere, lehiaketako partidua Autonomia Erkidegoen Selektzioen Txapelketarekin bat datorrenean, inplikaturako taldeak eskaturik, aurkariak neurketa horretako aldaketa baieztatu beharra dauka. Taldeak ezarritako epean neurketa jokatzeko datan ados jartzen ez badira, Euskal Saskibaloiko Federazioko Lehiaketa-Batzordeak ezarriko du data, ordua eta zelaia.

- Lehiaketako azken sailkapena hurrengo erara zehaztuko da: 1etik 14ra liga erregularraren arabera.

Igoerak (Sailkapen Fasea esleitutakoa izan ezik), jaitsierak eta sailkapen faseko taldeak zehazteko azken sailkapenaren ordena kontuan hartuko da.

Euskal Saskibaloiko Federazioaren Araudi Orokorreko 186 artikulua arabera:

"Goragoko mailara igotzeko fasean parte hartzen duten klubek, kategoria horretan taldeak badituzte, ez dute inola ere azken fase horretan parte hartzeko eskubiderik izango, baldin eta goragoko mailako beren taldeak aldi berean igoera- edo jaitsiera-faserik jokatzen ez badu. "

Ondorioz, mailaz igo edo Igoera Fasean edo igotzeko Sailkapen Fasean parte hartu ezin duen talde bat baldin badago, bere postua Liga Erregularrean hurrengo sailkatuak hartuko luke eta horrela hurrenez hurren (Kopako txapelkunarentzat ezarritakoak kontuan hartuko dira).

4.13.- SALBUESPENEZKO XEDAPENAK

Euskal Saskibaloiko Federazioko Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio lehiaketa sistema egokitu edo aldatzeko, osasun arrazoiengatik, taldeei uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

EMAKUMEZKOEN LEHEN MAILAKO KOPA

Mailan izena eman duten talde guztiek parte hartuko dute.

JOKATZEKO MODUA

- Final-zortzirenak: 14 taldeak 7 kanporaketetan parte hartuko dute eta kanporaketa hori, zozketa puru bidez eta partidu bakar batera jokatu da etxeko talde gisa izendatutako zelaian. 7 talde irabazleak zozketa bidez zehaztuko den final-laurdenetara aurrera egingo dute eta horiekin batera, zozketa bidez aukeratu den talde 1 gehiago (8 talde izateko). Final-zortzirenetako partiden ordutegiak jakinarazteko azken eguna 2024ko irailaren 10a izango da, 12:00etan. Ezer jakinarazten ez bada, jokoaren ohiko ordutegiak hartuko dira.

Datak: 2024ko irailaren 21ean/22an

Zozketa (final-zortzirenak eta final-laurdenak): 2024ko uztailearen 22an

Galtzaileen arteko zozketa: 2024ko irailaren 23an

↓

- Final-laurdenak: 4 norgehiagokak partidu bakarrera jokatu dira etxeko talde bezala esleitutako zelaian. 4 irabazleak finalerdietara aurrera egingo dute. Final-zortzirenetako partiden ordutegiak jakinarazteko azken eguna 2024ko irailaren 23a izango da, 18:00etan. Ezer jakinarazten ez bada, jokoaren ohiko ordutegiek hartuko dira.

Datak: 2024ko irailaren 28/29an

- Finalerdiak eta Finala: Amaieretako parekatzeak zozketa hutsez egingo dira. Bi finalerdiak zelaian berean eta ordutegi jarraituetan jokatu dira (goizez edo arratsaldean). Parekatzeak irabazten dituzten 2 taldeak sartuko dira finalean. Finalerdiak eta Amaierakoak antolatzea liga erregularreko talde sailkatuenari dagokio, 2024ko abenduaren 15eko jardunaldiko eztabaidaren ondoren.

Data: 2024ko abenduaren 28 eta 29an.

Zozketa: 2024ko urriaren 3an

- Sailkapena:

- Kopako txapelduna liga erregularrean 2. eta 5. postuen artean geratuz gero, sailkapen fasean parte hartu eta era berean antolatu beharko du.

- Kopako txapelduna liga erregularrean 6. eta 8 postuan geratuz gero, sailkapen fasean parte hartuko du (hori dela eta, liga erregularreko 5. sailkatuan ez du sailkapen fasean parte hartuko).

- Kopako txapelduna liga erregularrean 9. postutik behera geratuz gero, ez du izango sailkapen fasean parte hartzeko aukerarik.

EMAKUMEZKOEN LEHENENGO MAILA

TALDE PARTE HARTZAILEAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-
- 9.-
- 10.-
- 11.-
- 12.-
- 13.-
- 14.-

5.- EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILAKO BERARIAZKO OINARRIAK

5.1.- EGITURA

Emakumezkoen Lehenengo Maila, Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako Federazio Autonomikoez dagoena, aipatutako federazio ezberdinetako 20 taldez osaturik dago:

- Aurreko denboraldian mantendutako taldeak.
- Errioxako eta Nafarroako Autonomia Txapelketetatik eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Txapelketetatik igotako taldeak.

5.2.- JOKATZEKO MODUA

5.2.1.- Lehenengo Fasea

Lehenengo fase honetan 10 taldeko bi talde eratuko dira, “A-A” eta “A-B” izenekoak. Buelta bikoitzeko sistemaren bidez jokatu da talde guztiek elkarren aurka jokatu (18 jardunaldi).

“A-A” eta “A-B” multzoetan 1. postutik 5. postura sailkatutako taldeak, bigarren faseko “A-1” multzoan izango dira. “A-A” eta “A-B” multzoetan 6. postutik 10. postura sailkatutako taldeak berriz, bigarren faseko “A-2” multzoan izango dira.

5.2.2.- Bigarren Fasea

Bigarren faseko “A-1” eta “A-2” multzoetan jokatzeko modua, buelta bikoitzeko sistemaren bidezkoa izango da (10 jardunaldi), talde bakoitza bigarren fase honetan parte hartzen duten eta lehen faseko multzo berean egon ziren taldeen aurka jokatu da neurketetan izandako emaitzekin hasiko da.

Egutegi Olinpikoa egin ahal izateko, A-A multzotik datozen taldeek 1etik 5era bitarteko zenbakiak izango dituzte, eta A-B multzotik datozenek, 6tik 10era bitartekoak, sailkapenaren arabera.

5.2.3.- Sailkapen Fasea

Fase hau Kopako sistema bezala jokatu da, “A-1” multzoko 2. eta 5. postuen artean kokatutako lau taldeen artean.

Fase honetako neurketa guztiak, zelai berean, ondoz ondoko ordutegi eta lehiaketako ordutegi-sistema kontuan hartuz jokatu behar dira.

Parekatzeak hurrengoak dira:

Lehenengo jardunaldia

- Finalerdi 1: “A-1”eko 2. sailkatua – “A-1”eko 5. sailkatua
- Finalerdi 2: “A-1”eko 3. sailkatua – “A-1”eko 4. sailkatua

Bigarren jardunaldia

- Finala: finalerdi 1eko irabazlea – finalerdi 2ko irabazlea

Fase honetako epaileak, talde parte-hartzaileen kontura izango dira (talde bakoitzak bere gain hartuko du jokatzeko duen partida bakoitzeko arbitraje-kostuaren % 50).

Fase honetako antolaketa “A-1” multzoko 2. sailkatuari emango zaio.

Antolatzen duen taldeak antolamendu baldintzak (zelai bera, ondoz ondoko ordutegia, lehiaketako ordutegi-sistema, 200 pertsonako gutxieneko edukiera eta megafonia) betetzeko gai ez izatekotan, antolaketa hurrengo sailkatuaren eskuetara **igaroko** da.

5.3.- IGOERAK ETA JAITSIERAK

A-1 multzoko lehen sailkatua eta sailkapen fasea irabazten duen taldea zuzenean igoko dira Emakumezkoen Lehenengo Mailara.

Taldeetakoren batek ezin badu mailaz igo Emakumezkoen Lehen Mailan talde bat duelako, bere postua Liga Erregularreko sailkapena kontuan harturik beteko da.

Dagokion lurraldeko senior mailara jaitsiko dira A-2 multzoko azken bost talde sailkatuak (6.etik 10.era).

Emakumezkoen Lehen Mailatik Emakumezkoen Bigarren Mailara jaitsiz gero eta Emakumezkoen Lehen Mailara igoerarik eman ezean, Emakumezkoen Lehenengo Mailako jaitsiera kopuruak eragina izango du Lurralde Mailarako jaitsiera kopuruan.

Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako senior ligetako talde txapeldunak igoko dira Emakumezkoen Bigarren Mailako lehiaketa honetara.

Mailaz igo edo uko eginez gero, lehenetsun hauek hartuko dira kontuan, orden honetan:

A) 2024ko ekainaren 13a baino lehen, 13:00ak baino lehen, bere lurraldeko sailkapenik onena duena igoko da. Lurralde horretako talderik inskribatu ezean, ez da bat ere igoko.

B) Lurralde baten batetik talde bat ere igotzen ez bada, toki hori hurrengo ordenaren arabera beteko da:

1. Lurralde horretatik jaitsitakoak, baldin eta ondoen sailkatuak baleude.
2. Emakumezkoen Bigarren Mailako sailkapen nagusian jaitsi direnen artean ondoen sailkatuagatik, horrela, hurrenez hurren, azken sailkapenari jarraituz.

Plaza hutsen bat badago oraindik, eta eskabide-kopurua plaza hutsen kopurua baino handiagoa bada, zozketa egingo da Euskadiko Saskibaloiko Federazioan.

5.4.- DATAK

<u>LEHENENGO FASEA</u>			
<u>LEHENENGO ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2024ko iraila	29	2024ko abendua	01, 15 eta 22
2024ko urria	06, 13, 20 eta 27	2025eko urtarrila	12, 19 eta 26
2024ko azaroa	03, 10, 17 eta 24	2025eko otsaila	02, 09 eta 16

<u>BIGARREN FASEA</u>			
<u>LEHENENGO FASEA</u>		<u>BIGARREN FASEA</u>	
2025eko otsaila	23	2025eko martxoa	30
2025eko martxoa	02, 09, 16 eta 23	2025eko apirila	06 eta 13
		2025eko maiatza	04 eta 11

<u>SAILKAPEN FASEA</u>			
2025eko maiatza			17 eta 18

5.5.- NEURKETEN ORDUTEGIA

Lehiaketa jardunaldiak, larunbateko 16:00tik 20:30tara eta igandeko 11:00tik 12:30tara eta 16:00tik 19:00tara emango dira, neurketei hasiera emateko gehienezko ordutegiak hauek direlarik.

Larunbatetan eta igandetan jokatuko diren neurketak zelai itxi eta estali batean aurrera eramane behar dira, klimaren ondorioz partidurik ez atzeratzeko. Baldintza horiek bete gabe, ezin izango litzateke partidurik aurrera eramane.

Euskal Saskibaloia Federazioak gainerako Federazio Autonomiko parte-hartzaileekin batera, azkenengo jardunaldian emango diren neurketa guztietarako ordu amankomun bat hitzartuko du. Amaierako sailkapenean eraginik ez duten neurketak, ordu horretatik kanpo geratu ahalko dira.

5.6.- EGUTEGIEN ZOZKETA ETA PRESTAKETA

Egutegien prestaketa eta zozketa, **2024ko uztailaren 11n** 13:00etan gauzatuko da Euskal Saskibaloia Federazioaren bulegoetan.

5.7.- EPAIKETAK

Lehiaketa osoko epaileak Euskadiko, Nafarroako eta Errixako Federazioetako Arbitro Batzordeak izendatuko ditu, eta epaile nagusia zein laguntzailea 4. multzokoak edo goragokoa izango dira.

Epaileen joan-etorrien gastuak parte hartzen duten talde guztien artean erdibana hainbanatuko dira.

Zerrenda hau osatuko duten epaileak Euskadiko, Nafarroako eta Errixako Federazioetako Arbitro Batzordeak proposatuko ditu, gutxienez lehiaketa hasi baino 20 egun lehenago.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako Batzordeetako epaileek parte hartzen duten taldeek bete beharko dituzte, parte hartzen duten taldeen batzorde berekoak ez direlarik.

Euskadiko, Nafarroako eta Errioxako Epaile Batzordeek 15 egun lehenago bidali beharko dizkio Euskadiko Saskibaloia Federazioari jardunaldi bakoitzeko epaile-izendapenak.

Epaiketa-ordainagiriak Federazio Autonomiko bakoitzak ezartzen duen moduan ordainduko dira, eta etxean jokatzeko duen taldearen kontura izango dira.

Lehiaketaren jarraipena eta epaile-prestakuntza asmoz, klubek, nahi izanez gero, etxean jokatzeko dituzten partida guztiak grabatzea eskatzen da. Grabazio horiek ez dira publikoak izango, eta Euskal Epaileen Batzordeko epaileen jarraipena eta prestakuntza egiteko baino ez dira erabiliko.

Hala ere, talde parte-hartzaile bakoitzak bere neurketa gehienez hiru aldiz grabatu beharko du lokal gisa denboraldian zehar, klub horrek bere partida guztiak lokal gisa grabatu eta bidaltzea erabaki ezean.

Klub bakoitzak dagokion OneDrive karpeta igo beharko ditu grabaketak, horiek ezabatuak edo baimenik gabe ez deskargatzeko. Grabaketak igotzeko esteka denboraldia hasi baino lehenago bidaliko da. Derrigorrez grabatu behar diren neurketak Euskal Saskibaloia Federazioak adieraziko ditu lehiaketan parte hartzen duten gainerako Federazio Autonomikoekin batera. Grabazioen datak partida jokatu baino gutxienez zazpi egun lehenago jakinaraziko dira.

Grabaketa, OneDriveko karpeta igo beharko da gehienez 4 fitxategitan (laurden bakoitzetik 1) neurketa bukatu eta 48 orduko epean, hala ere gomendagarria da fitxategi bakar batean igotzea. Ez da fitxategi lehenetsiaren formaturik ere ezartzen (mp4, mov, mts, avi...)

Lehiaketa-Oinarri honetako 6 zenbakidun eranskinean azaltzen diren arauak kontuan harturik egin behar da grabaketa. Arau hori bete ez gero, Diziiplina Batzordeak zigortuko du Diziiplina Araudiaren 45.G) artikulua aplikatuz, eta ez da kontuan hartuko bidalitako bideoen zenbaketan.

5.8.- IZENA EMATEKO DATAK

Lehiaketa honetan izena emateko gehienezko data, **2024ko uztailaren 5a izango da, 10:00ak baino lehen.**

2024/2025 denboraldian parte hartuko duten taldeen klubek, kadete eta gazte mailako taldeak izan behar dituzte.

Senior taldearen izen-ematearekin batera, senior taldearen sexu bereko kadete eta gazte mailako taldeen izen-emateak aurkeztu beharko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen duen senior taldearen ohiko jokalekua, klubeko kadete eta gazte mailan izen emandako taldeek ohiko jokalekua duten herri berean edo mugakidean egon behar da, modu honetan, senior taldea eta harrobiko taldeak kirol antolaketa berean integratuta egon daitezten.

Aurreko baldintzak bete ezean, senior taldeak maila galduko dute eta baita izen-emateko kirol eskubideak ere.

5.9.- AKTEN BIDALKETA ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA

Akta digitalaren erabilpenaren bidez, epaile nagusia izango da partidua ixteko eta aktaren bidalketaren prozesua aurrera eramateko arduraduna

5.10.- JOKALARIAK

Jokalariei alta emateko azken eguna **2025eko otsaileko azken egun baliaduna izango da, 14:00ak baino lehen**, haien kategoria, maila edo jatorria edozein dela ere. Ezin izango da lurralde-mailako jokalaririk ezarri, baldin eta haren lizentzia 2025eko otsaileko azken egun baliadunetik aurrera izapidetzen bada, 14:00ak arte.

Denboraldian osoan zehar, taldeek gutxienez 8 jokalaria eta 12 gehienez izen eman behar dute. Horien artean formakuntzako 8 jokalarik eta gehienez Erkidegotik kanpoko jokalaria batek izen eman behar dute.

“Formakuntza jokalaria” Araudi Orokorreko 84.5 artikuluko baldintzak betetzen duen jokalaria da.

5.11.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten klubek **2024ko uztailaren 5ean 10:00ak baino lehenago** izen eman beharko dute, **1.250 euroko** abala aurkeztu beharko du bere Federazioak edo banku-erakunde edo aurrezki kutxe batek, edo Euskal Saskibaloiko Federazioak ematen duen banku-kontuan diru-sartzea egin beharko du, bai kirol zein betebeharrak ekonomikoak bermatzeko helburuarekin.

Jokatzeko baloi ofiziala BADEN BX465 LEXUM modeloa da.

Jokorako baloi ofiziala aurkeztea nahitaezkoa da neurketa hasi baino lehenagoko beroketan eta atsedendietan (gutxienez 9 baloi, 4 talde bakoitzarentzat eta 1 epailearentzat).

Arau hau bete ezean Diziplina Batzordeak zigortuko du Diziplina Araudiaren arabera.

Lehiaketaren martxa onena izan dadin, neurketen egunen, orduen, zelaien etab.-en aldaketak, dagokion Lurralde edo Erkidego Federazioaren bitartez aurrera eramane beharko da. Euskal Saskibaloiko Federazioak indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera erabakiko du.

Ondorioz tramite guztie hauek Euskal Saskibaloiko Federazioari dagozkio.

Diziplina eta Apelazio-Batzordeak Euskal Saskibaloiko Federaziokoak izango dira.

Nafarroako eta Errioxako federazioetako klubek, inskripzio-orriarekin batera, gai honen onarpen-agiria bidaliko dute.

5.12.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Bai Lurralde, Erkidego zein Estatuko federazioen batekin betebeharrak guztiak ordainduta ez dituzten klubek, ez dira onartuak izango; ondorioz, Lurralde eta Erkidego Federazioek talde bakoitzaren izen-emate dokumentuak puntu hori atxikitu beharko dute.

- Lehiaketako azken sailkapena hurrengo erara zehaztuko da: 1etik 20ra multzoetako sailkapenaren arabera, "A-1" (1etik 10era) eta "A-2" (11tik 20ra).

Igoerak (Sailkapen Fasea esleitutakoa izan ezik), jaitsierak eta sailkapen faseko taldeak zehazteko azken sailkapenaren ordena kontuan hartuko da.

Euskal Saskibaloien Federazioaren Araudi Orokorreko 186 artikulua arabera:

"Goragoko mailara igotzeko fasean parte hartzen duten klubek, kategoria horretan taldeak badituzte, ez dute inola ere azken fase horretan parte hartzeko eskubiderik izango, baldin eta goragoko mailako beren taldeak aldi berean igoera- edo jaitsiera-faserik jokatzen ez badu. "

Ondorioz, mailaz igo edo Igoera Fasean edo igotzeko Sailkapen Fasean parte hartu ezin duen talde bat baldin badago, bere postua Liga Erregularrean hurrengo sailkatuak hartuko luke eta horrela hurrenez hurren (Kopako txapelkunarentzat ezarritakoak kontuan hartuko dira).

- Lehiaketa honetako entrenatzaileen batek era berean Errioxako, Nafarroako edo Euskal Saskibaloien Federazioko gizon zein nesken selekzioen (kadete, haur, minibasket) baten entrenatzailea bada ere, lehiaketako partidua Autonomia Erkidegoen Selektzioen Txapelketarekin bat datorrenean, inplikaturako taldeak eskaturik, aurkariak neurketa horretako aldaketa baieztatu beharra dauka. Taldeak ezarritako epean neurketa jokatzeke datan ados jartzen ez badira, Euskal Saskibaloien Federazioko Lehiaketa-Batzordeak ezarritako du data, ordua eta zelaia.

5.13.- SALBUEZPENEZKO XEDAPENAK

Euskal Saskibaloien Federazioko Zuzendaritza Batzordeari baimena ematen zaio lehiaketa sistema egokitu edo aldatzeko, osasun arrazoiengatik, taldeei uko egiteagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA

TALDE PARTE HARTZAILEAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-
- 9.-
- 10.-
- 11.-
- 12.-
- 13.-
- 14.-
- 15.-
- 16.-
- 17.-
- 18.-
- 19.-
- 20.-

6.- GAZTE ETA KADETE MAILETAKO GIZON ETA EMAKUMEEN TBERARIAZKO OINARRIAK

6.1.- EGITURA

Lau txapelketa horietako bakoitza 8 taldek osatuko dute lehen fasean, eta horiei, bigarren fasean, lurraldeetako lehiaketetatik datozen 6 talde gehituko zaizkie.

Lehenengo fasean, kategoria bakoitzean parte hartuko duten 8 taldeak hauek izango dira: A-1 multzoan sailkatutako lehen 6 taldeak eta aurreko denboraldiko A-2 multzoan sailkatutako lehen 2 taldeak.

A-1 Multzoan sailkatutako lehen 6 taldeen eta aurreko denboraldiko A-2 Multzoan sailkatutako lehen 2 taldeen artean klub bereko bi talde baleude, horietako batek bakarrik izango luke lehen fase honetan parte hartzeko eskubidea. Kasu honetan, aurreko denboraldiko A-2 mailako hurrengo taldeari egokituko zaio postua, sailkapenaren arabera, baldin eta dagoeneko sailkatuta ez badago.

Lehenengo fasean, kategoria bakoitzean parte hartuko duten taldeak 2023/2024 denboraldiko kirol-eskubideak dituzten taldeak izango dira, eta klub bakoitzak gizonetzkoen eta emakumezkoen talde banarekin bakarrik parte hartu ahal izango du lehiaketa bakoitzean.

Bigarren fasean, lurraldeko lehiaketetatik datozen 6 talde sartuko dira (2 Lurralde Federazio bakoitzeko).

- Lurralde federazio bakoitzean sailkatutako lehen taldeak zuzenean parte hartuko du A-1 kanporaketarako sailkapen-fasean.
- Lurralde-federazio bakoitzean sailkatutako bigarren taldeen artean, aurreko denboraldian koefiziente onena zuen lurralde-federazioko taldeak A-1 multzorako sailkapen fasean parte hartuko du. Beste 2 taldeek A-2 multzoan parte hartuko dute.

Koefiziente hori kategoriaren eta sexuaren arabera kalkulatu da. Horretarako, aurreko denboraldiko Euskal Ligan Lurralde Federazio bakoitzean sailkatutako azken taldea hartuko da kontuan. Beraz, bigarren postu hori sailkatutako azken taldeen artean sailkapenik onena duen Lurralde Federazioari esleituko zaio.

Bigarren faseetan gehienez bi taldek parte hartu ahal izango dute klub bakoitzeko, baldin eta gutxienez bi taldeetako batek lehen urteko jokalarien lizentzien % 75 badu.

Egoera hori gertatuz gero, klub bereko bi taldeen arteko partida bigarren faseko lehen jardunaldian finkatuko da.

6.2.- JOKATZEKO MODUA

Lehiaketa 3 FASETAN banatuko da:

LEHENENGO FASEA: 8 taldetako multzo bakarra. Itzuli bikoitzeko sistema, denek denen aurka (14 jardunaldi). Lehenengo 5 taldeak “A-1” multzora sailkatuko dira (Estatuko Txapelketara sailkatzeko multzoa). 6. postuan sailkatutako taldeak A-1erako Sailkapen Fasean parte hartuko du. Azkeneko 2 taldeak “A-2” multzora sailkatuko dira (Euskal Ligan mantentzeko multzoa). Fase horretako txapeldunak, Titulurako fasean parte hartzeko eskubidea izango du.

BIGARREN FASEA:

“A-1” MULTZOA: Lehenengo faseko lehenengo 5 sailkatuez eta “A-1”erako Sailkapen Faseko txapeldunaz osatua dago. Itzuli bikoitzeko sistema, denek denen aurka (10 jardunaldi). Fase honetako txapelduna, Espainiako Txapelketara sailkatua izango da Euskadiko bigarren bezala.

“A-2” MULTZOA: Lehenengo Faseko azken bi sailkatuez eta beste 6 taldeez (Lurralde Federazioetatik sartutako bigarren taldeak, eta A-1erako sailkapen-faseko galtzaileak) osatua dago. Itzuli bikoitzeko sistema, denek denen aurka (14 jardunaldi). Multzo honetako lehenengo bi sailkatuak 2025/2026ko Euskal Ligara sailkatuko dira.

“A-1”erako SAILKAPEN FASEA:

- Finalerdiak: koefiziente onena duen Federazioko txapelduna, hirugarren koefiziente onena duen Federazioko txapeldunaren aurka. Lehenengo faseko seigarren sailkatua, bigarren koefiziente onena duen Federazioko txapeldunaren aurka.
- Finalerdiak koefiziente onena duen Federazioko talde txapeldunaren zelaian eta bigarren koefiziente onena duen Federazioko talde txapeldunaren zelaian egingo dira.
- Finalean lokal bezala zein talde arituko den zehazteko, zozketa bat egingo da finalerdietako bi talde irabazleen artean.

Koefiziente hori kategoriaren eta sexuaren arabera kalkulatu da. Horretarako, Lurralde Federazio bakoitzaren aurreko denboraldian Euskal Ligan sailkatutako azken taldea hartuko da kontuan. Beraz, bigarren postu hori sailkatutako azken taldeetatik sailkapen onena duen Lurralde Federazioari esleituko zaio.

Finalerdi bakoitzeko antolatzaileak eta finalerdi bakoitzeko antolatzaile posibleek haien ordutegia adierazi beharko dute. Ahal den neurrian, finalerdien bat larunbat arratsaldean jokatu balitz, finala igande arratsaldean programatu beharko litzateke.

Lauko finalerdi bakoitzeko arbitrajeak, parte hartzen duten taldeen kontura izango dira (talde bakoitzak jokatu duen partida bakoitzaren arbitraje-kostuaren % 50 ordainduko du).

Euskadiko Saskibaloia Federazioak lauko finalen zozketa eta egutegiak egingo ditu.

HIRUGARREN FASEA (TITULURAKO FASEA): Lauko finala Euskadiko txapelduna nor den erabakitzeko. Fase honetan A-1eko lehen hiru sailkatuek eta Lehen Faseko lehen sailkatuak parte

hartuko dute, laugarren sailkatu gisa. Lehen Faseko txapeldunak Bigarren Fasean laugarren postuko sailkapen hobe lortuko balu, azken hori hartuko litzateke erreferentziatzat finalerdietako kanporaketetarako, eta “A-1” multzoko laugarren taldeak parte hartuko luke.

Lauko Finaleko txapelduna Espainiako Txapelketarako sailkatuko da Euskadiko lehen sailkatu bezala. “A-1” multzoko lehen talde sailkatua eta Euskadiko txapelduna berbera badira, Estatuko Txapelketarako bigarren postua, hirugarren fase honetako txapeldunordeari egokituko zaio, Euskadiko bigarren gisa.

- Finalerdiak: A-1 multzoan sailkatutako lehen taldea, A-1 multzoan sailkatutako laugarren taldearen aurka. A-1 multzoan sailkatutako bigarren taldea, A-1 multzoan sailkatutako hirugarren taldearen aurka.

Fase honen antolaketa A-1 multzoko sailkatutako lehen taldeari emango zaio, betiere baldintza hauek betetzen badituzte: jokaleku bera, ondoz ondoko ordutegiak, txapelketako ordutegi-bandak eta megafonia. Taldeak baldintza horiek bete ezin baditu, hurrengo sailkatuak burutuko du antolaketa.

Sailkapen Fase bakoitzeko antolatzaileak hurrengo erara antolatuko ditu neurketak, A edo B aukera aukeratuz:

- A AUKERA: Finalerdiak larunbat goizeko ordutegian egiten badira, finala igande goizeko ordutegian programatuko da.
- B AUKERA: Finalerdiak larunbat arratsaldean egiten badira, finala igande arratsaldean programatuko da.

Lauko finalerdiak arbitrajeak, parte hartzen duten taldeen kontura izango dira (talde bakoitzak jokatzeko duen partida bakoitzaren arbitraje-kostuaren % 50 ordainduko du).

Euskadiko Saskibaloiko Federazioak lauko finalen zozketa eta egutegiak egingo ditu.

Fase honen antolatzaileak megafonia izan beharko du taldeak aurkezteko eta sariak banatzeko.

6.3.-IGOERAK ETA JAITSIERAK

2025/2026 denboraldirako, Euskal Ligarako sailkatutako zortzi taldeetako batek postu horri uko egingo balio, aurreko denboraldian Euskal Ligako A-2 multzoan sailkatutako hurrengo taldeari egokituko litzaioke.

2025/2026 denboraldirako Euskal Ligan jarraituko dute A-1 Multzoko sei taldeek eta A-2 Multzoko lehen bi taldeek (6.1 puntuan klub bakoitzeko talde batek parte hartzeari buruz xedatutakoa izan ezik).

Plazaren bat hutsik badago, plaza horiek Euskadiko Saskibaloiko Federazioaren irizpidearen arabera beteko dira, interesagatik eta kirol-proiektuagatik, izena emateko aurreikusitako epea (lehiaketa araudi hauetan adierazitakoa) baino lehen eskatu dituzten taldeen artean.

6.4.- DATAK

<u>LEHENENGO FASEA</u>			
<u>LEHENENGO ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2024ko iraila	22 eta 29	2024ko azaroa	17 eta 24
2024ko urria	06, 13, 20 eta 27	2024ko abendua	01, 15 eta 22
2024ko azaroa	10	2025eko urtarrila	12 eta 19

<u>“A-1”erako SAILKAPEN FASEA</u>	
2025eko urtarrila	25 eta 26

<u>BIGARREN FASEA “A-1” MULTZOA</u>			
<u>LEHENENGO ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2025eko otsaila	02, 09, 16 eta 23	2025eko apirila	09, 16, 23 eta 30
2025eko martxoa	02	2023ko maiatza	06

<u>BIGARREN FASEA “A-2” MULTZOA</u>			
<u>LEHENENGO ITZULIA</u>		<u>BIGARREN ITZULIA</u>	
2025eko otsaila	02, 09, 16 eta 23	2025eko martxoa	23 eta 30
2025eko martxoa	02, 09 eta 16	2025eko apirila	06 eta 13
		2025eko maiatza	04, 11 eta 18

<u>HIRUGARREN FASEA</u>			
2025eko apirila	GAZTEAK	12 eta 13	
2025eko apirila	KADETEAK	26 eta 27	

6.5.- NEURKETEN ORDUTEGIA

Kadete maila

- 1- Lehenengo fasean, lehiaketa jardunaldizat hartzen da larunbateko 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 20:00etara izango da.
- 2- Bigarren faserako, lehiaketa jardunaldizat larunbateko 10: 00etatik 13: 00etara eta 15: 30etik 20: 00etara izango da, eta igandeko 10: 00etatik 13: 00etara eta 16: 00etatik 19: 00etara hartuko da.
- 3- Euskadiko kadete selekzioen lana errazteko, 2025eko urtarrilaren 12ko jardunaldira arte ezin izango da partidarik programatu igandetan. Euskadiko kadete selekzioekin jokalariai deituak dituzten taldeek maila altuagoko klub bereko taldeetan soilik zelairatu ahal izango dituzte jokalariai, bai jokatzeko dutenean, bai bertakoak edo bisitariak direnean, 1. puntu ezarritako mugak kontuan hartuta.
- 4- Azken jardunaldian Euskadiko Saskibaloia Federazioak ordutegi komuna ezarriko du “A-1” Multzoko partidetarako. Partida guztietarako ordutegi komunetik salbuetsi ahal izango dira, azken sailkapenari eragiten ez dioten partidetan.

Gazte maila

- 1- Lehiaketa jardunaldizat hartzen da larunbateko 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 20:00etara eta igandeko 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da
- 2- Euskadiko Kadete Selektzioekin jokalariai deituak dituzten taldeek maila altuagoko klubeko taldeetan soilik zelairatu ahal izango dituzte, bai bertakoak edo bisitariak direnean, kadete mailako 1. puntu ezarritako mugak kontuan hartuta.
- 3- Azken jardunaldian Euskadiko Saskibaloia Federazioak ordutegi komuna ezarriko du A-1 Multzoko Bigarren Faseko partidetarako. Partida guztietarako ordutegi komunetik salbuetsi ahal izango dira, azken sailkapenari eragiten ez dioten partidetan.

6.6. EGUTEGIEN ZOZKETA ETA PRESTAKETA

Lehenengo Faseko egutegien prestaketa eta zozketa, **2024ko uztailaren 11n** 13:00etan gauzatuko da Euskal Saskibaloia Federazioaren bulegoetan.

Bigarren Faseko egutegien prestaketa eta zozketa, **2025eko urtarrilaren 27an** gauzatuko da Euskal Saskibaloia Federazioaren bulegoetan.

- Euskal Liga Gazte Mutilak: 11:00
- Euskal Liga Gazte Neskak: 11:30
- Euskal Liga Kadete Mutilak: 12:00
- Euskal Liga Kadete Neskak: 12:30

6.7.- JOKALEKUEN EZAUGARRIAK

PartidaK jokatzeko zelaiek hurrengo baldintza hauek beteko dituzte:

- Pabiloi estalia eta itxia
- Erreglamenduzko neurriak
- Pieza bakarreko taula gardenak
- Markagailua, erlojua - kronometroa
- Hogeita lau segunduko araua egiaztatzeko tresna elektronikoa ikusgai eta automatikoa.

Liga horietan parte hartzen duten taldeen eremuak beren Lurralde Federazioek homologatuko dituzte. Zelaietarako ezarritako baldintzak betetzen ez badira, talde hauek ezin izango dute liga hauetan parte hartu.

Talderen batek bere partidak modulu batean jokatzen baditu, bere lurralde-federazioak ere homologatu beharko du modulu hau, aurreko baldintza berberak betez.

Moduluaren homologazioa betetzen ez bada, Euskadiko Saskibaloia Federazioaren Diziplina Araudian ezarritakoa aplikatuko da.

6.8.- EPAIKETAK

Lehiaketa osoko epaileak Euskadiko Saskibaloia Federazioko Arbitro Batzordeak izendatuko ditu, eta epaile nagusia 4. multzokoa edo goragokoa izango da.

Epaiketak gastuak, neurketan parte hartzen duten bi taldeen artean proportzio berean banatuko da.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Batzordeetako epaileek parte hartzen duten taldeek bete beharko dituzte, parte hartzen duten taldeen batzorde berekoak ez direlarik.

Tokikoak ez diren epaile-eskaerak Euskadiko Saskibaloia Federazioan izapidetu beharko dira, gutxienez partidua jokatu eta 15 egun naturaleko epean, dagokion Lurralde Federazioaren bitartez horri zuzendutako eskabide-inprimakiaren bidez.

Epaiketa-ordainagiriak Lurralde Federazio bakoitzak ezartzen duen moduan ordainduko dira, eta etxean jokatzen duen taldearen kontura izango dira.

Lauko Finalen epaiketak (lurraldeko lehiaketetatik datozen taldeak eta titulua lortzeko fasea) ez dira bertakoak edo mistoak izango.

6.9.- IZENA EMATEKO DATAK

Lehiaketa honetan izena emateko gehienezko data, **2024ko uztailaren 5a izango da, 10:00ak baino lehen.**

Bigarren fasean sartzen diren taldeek izena emateko azken eguna **2025eko urtarrilaren 17a da, 10:00ak baino lehen.**

6.10.- AKTAK BIDALI ETA EMAITZAK JAKINARAZI

Akta digitala erabilia, epaile nagusia izango da partidaren itxieraren eta akta bidaltzeko prozesu automatikoaren arduraduna.

6.11.- JOKALARIAK

Jokalariei alta emateko azken eguna **2025eko otsaileko azken egun balioiduna izango da, 14: 00ak arte**, eta Araudi Orokorreko 101) eta 102) artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta. Ezin izango da lurralde-mailako jokalaririk zelairatu, baldin eta horien lizentzia 2025eko otsaileko azken egun baliodontetik aurrera izapidetzen bada.

Taldeek denboraldi osoan zehar gutxienez 8 eta gehienez 15 jokalaria eduki beharko dituzte inskribatuta, eta partidetan gehienez 12 jokalarik parte hartu ahal izango dute.

Ez da onartuko jokalaria bat taldez aldatzea kategoria bereko edo beheragoko mailako beste batera, hasieran izena eman duen taldearekin partida batean parte hartu ondoren.

Euskal Ligako talde batekin zelairatutako jokalaria ezin izango dira lehiaketa bereko beste talde batean zelairatu.

Gazte mailan klub bereko jokalaria sartu ahal izango dira, gehienez ere 7 jokalarirekin.

Euskal ligako talde batean lizentzia izapidetu duten haur mailako jokalariek ezin izango dute Espainiako Kluben arteko Haur Mailako Txapelketan parte hartu.

6.12.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Mutilen baloi ofiziala BADEN markakoa izango da, BX471 LEXUM modeloa.

Nesken baloi ofiziala BADEN marka izango da, BX471 LEXUM modeloa.

Jokorako baloi ofiziala aurkeztea nahitaezkoa da neurketa hasi baino lehenagoko beroketan eta atsedendietan (gutxienez 9 baloi, 4 talde bakoitzarentzat eta 1 epailearentzat).

Lehiaketaren martxa onena izan dadin, neurketen egunen, orduen, zelaien etab.-en aldaketak, dagokion Lurralde Federazioaren bitartez aurrera eraman beharko da. Euskal Saskibaloiko Federazioak indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera erabakiko du.

Ondorioz tramite guztie hauek Euskal Saskibaloiko Federazioari dagozkio.

Euskal Ligan parte hartzen duten taldeek nahitaez izan behar dute federazio-lizentzia duen zelai-ordezkarik bat etxeko gisa jokatzeko duten partida guztietan.

Diziplina eta Apelazio Batzordeak Euskadiko Saskibaloiko Federaziokoak izango dira.

6.13.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

Ez da onartuko edozein federazioerikiko betebeharrak egunean ez dituzten klubetako talderik inskribatzea, dela lurralde-eremukoa, dela autonomia-erkidegokoa edo estatukoa. Beraz, lurralde-eta autonomia-federazioek puntu hori egiaztatu beharko dute talde bakoitzaren inskripzio-agirian.

6.14.- SALBUESPENEZKO XEDAPENAK

Euskadiko Saskibaloia Federazioari baimena ematen zaio lehiaketa-sistema egokitzeko, baldin eta osasun-arrazoia direla medio atzerapen bat gertatzen bada hasieran, edo behin lehiaketa hasita gelditu egiten bada.

6.15.- ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETARA SARBIDEA

Kategoria honetarako Espainiako Saskibaloia Federazioaren Lehiaketa Arauetan ezarritakoaren arabera egingo dira.

A-1 multzoko lehen sailkatuak (Bigarren Fasea) Espainiako Txapelketetan parte hartzeko eskubidea izango du, Euskadiko bigarren sailkatu gisa.

Hirugarren Faseko txapeldunak (Lauko Finala) Espainiako Txapelketetan parte hartzeko eskubidea izango du, Euskadiko lehen sailkatu gisa.

A-1 Multzoko sailkatutako lehen taldea eta Euskadiko Txapelduna talde bera badira, Espainiako Txapelketarako bigarren postua Hirugarren Fase honetako (Lauko Finala) txapeldunordeari egokituko zaio, Euskadiko bigarren talde sailkatu gisa.

Espainiako Txapelketarako hirugarren posturen bat egonez gero, "A-1" Multzoan (Bigarren Fasea) ondoen sailkatutako taldeari dagokio, Espainiako Kluben arteko Txapelketarako lehen eta bigarren sailkatu diren Euskadiko bi taldeak kanpoan utzita.

EUSKAL LIGA GAZTE MUTILAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-

EUSKAL LIGA GAZTE NESKAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-

EUSKAL LIGA KADETE MUTILAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-

EUSKAL LIGA KADETE NESKAK

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-

7.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA NAFARROAKO LURRALDE SELEKZIOKO TXAPELKETETAKO OINARRI BEREZIAK (GAZTE-KADETE-HAUR ETA MINIBASKET MAILAK)

7.1.- EGITURA

Txapelketa hauek Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Federazioetako Selektzioek osatuko dituzte, gizezkoetan eta emakumezkoetan.

7.2.- JOKATZEKO MODUA

Lehen egunean finalerdiak eta bigarrenean berriz hirugarren eta laugarren postuak eta finala sistemaren bidez jokatu da. Zozketa berdina izango da gizezkoetan eta emakumezkoetan

7.3.- DATAK

GAZTEAK:	2025eko urtarrilaren 4an eta 5ean
KADETEAK:	2024ko azaroaren 1ean eta 2an
HAURRAK:	2024ko azaroaren 2an eta 3an
MINIBASKET:	2024ko abenduaren 28an eta 29an

7.4.- ZOZKETAK

Egutegien zozketak Euskal Federazioaren bulegoetan egingo dira, hurrengo egunetan:

GAZTEAK:	2024ko irailaren 18an
KADETEAK:	2024ko irailaren 18an
HAURRAK:	2024ko irailaren 18an
MINIBASKET:	2024ko irailaren 18an

7.5.- AMAIERAKO XEDAPENAK

Antolaketa

GAZTEAK:	Nafarroako Saskibaloï Federazioa
KADETEAK:	Bizkaiko Saskibaloï Federazioa
HAURRAK:	Arabako Saskibaloï Federazioa
MINIBASKET:	Gipuzkoako Saskibaloï Federazioa

Aurtengo denboraldian, emakumezkoen eta gizezkoen haur mailako txapelketa FIBA jokoaren arau ofizialekin jokatu da, eta PASARELA arauak ezabatuko dira, honako salbuespen hauekin:

A) Partida batean, talde batek 50 puntuko aldeagatik beste bat gainditzen badu markagailuan, partida amaitutzat emango da, eta une horretan emaitza izango da akta ofizialak markatu duena. Gainerako minutuekin, erlojupeko beste norgehiagoka bat jokatu da, aktan edo sailkapen-ondorioetarako gorabeherarik gabe, honako salbuespen hauekin:

- Faltak zenbatzen jarraituko dira baina aktan idatzi gabe.
- Falta deskalifitzailearen bat egonez gero, Lehiaketa Batzordeari bidaliko zaio.

B) Epaileak ez du baloia alboko eta hondoko sakeetan ukituko, falta, aldaketa eta hutsartearen ondoren izan ezik.

Sari banaketa modu bateratuan egingo da, beti azken partidaren amaieran, eta selekzio guztiek bertan egon behar dute. Hirugarren eta laugarren postuak goizeko partiduak amaitzean eman ahal izango dira.

JOKALEKUA ETA ORDUTEGIAK

Federazio antolatzaileak 2024ko irailaren 25a baino lehen jakinarazi beharko dio Euskadiko Federazioari zein egoitzatan egingo diren txapelketak.

Larunbat eta igande goizetako partiden ordutegiak: 10: 00etan eta 12: 00etan.

Partiden ordutegiak larunbat eta igande arratsaldeetan: 16: 00etan eta 18: 00etan, selekzioen itzulera errazteko.

Selekzioak euren helmugetatik joan daitezzen errazteko eta, horrela, larunbat goizeko jardunaldian oso goiz ez jaikitzeke, txapelketa guztietan ezarri behar da lokal gisa jarduten duen selekzioak beti goizeko lehen ordutegian joka dezala bere partida.

Igande goizean beti jokatuko dira hirugarren eta laugarren postuak eta igande arratsaldean jokatuko dira bi finalak. Horrela, emakumezko eta gizonezko selekzio batzuek joan-etorriak batera egin ahal izango dituzte.

Igandeko jardunaldian gizonezkoetan eta emakumezkoetan neurketa berdinak ematen badira, norgehiagokak emakumezkoen zein gizonezkoen selekzioak goizeko edo arratsaldeko ordu-tarte berean batera jokatzeke moduan programatuko dira.

Lau txapelketetako partiden ordutegiek sexu berdintasuneko irizpideak errespetatuko dituzte, beraz, bi txapelketak gizonezkoenak izango dira lehen ordutegian eta beste bi txapelketak emakumezkoenak berriz.

Partida guztiak kantxa osoan jokatuko dira, inolaz ere ezingo da moduluan jokatu.

Federazioek, txapelketen antolatzaile gisa, honako hauek hartuko dituzte beren gain:

- Instalazioak eta horien mantentze-lanak ekitaldian zehar egongo dira. Instalazioak eskuragarri egon beharko du jardunaldi bakoitza hasi baino ordu bete lehenago.
- Jokatzeke 9 baloi ofizial (4 baloi selekzio bakoitzaren beroketarako eta baloi 1 partidurako).
- Zelai-ordezkarria partidu guztietarako.
- Partidu guztietarako mahaiko ofizialak izendatzea.
- Mopa zerbitzua
- Megafonía.
- Partidak stream bidez eman

Euskal Saskibaloï Federazioak hurrengo hau izango du bere gain:

- Txapelketaren kartela, non Euskadiko, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Federazioen logotipoak agertu beharko diren.
- Txapelketen egutegiak.
- Diziiplina-batzordeak.
- Sariak.
- Txapelketen irudiaren eta diseinuaren arduraduna izango da, eta Lurralde-Federazioek beharrezko kudeaketak egin beharko dituzte instalazioen tokiko arduradunekin, onar ditzaten. Euskal Federazioak jarriko du materiala, federazio antolatzailearen laguntzarekin.

Epaiketak

Neurketen epaileak Euskadiko Batzordeak izendatuko ditu. Gazte eta kadete mailetan 3. Multzokoak izango dira eta Haur eta Minibasket mailetan berriz, 4. Multzokoak.

Partida hauetako epaileek ez dute eskubiderik jasoko lehiaketarekin batera prestakuntza- eta hobekuntza-jarduera tekniko bat egiten bada. Joan-etorrietako eta mantenuko gastuak Euskal Federazioaren kontura izango dira.

Diziiplina-Batzordea

Diziiplina-Batzordea Euskal Federaziokoa izango da. Neurketako aktan jasotzen diren txostenei egin dakizkiekeen alegazioak, gehienez ere, neurketa amaitu eta ordubete geroago aurkeztu beharko dituzte interesdunek.

Jardunaldia amaitu eta hiru ordu igaro baino lehen jakinarazi beharko dizkie Batzorde honek ebazpenak ukituei, eta horiek Apelazio Batzordera jo ahal izango dute, aurreko komunikazioaren ondorengo bi orduen barruan.

Apelazio-Batzordea

Apelazio Batzordea Euskal Saskibaloï Federazioak izendatutako epaile bakar batek osatuko du.

Batzorde honen ebazpenak inplikaturako taldeei jakinarazi beharko zaizkie hurrengo jardunaldia hasi aurretik, federazio-bidea agortzen dute eta betearazleak dira.

Jokalariak

Federazio bakoitzak, txapelketa hasi baino astebate lehenago gutxienez, taldearen triptikoa bidali beharko dio Euskal Saskibaloï Federazioari, gehienez ere 12 jokalarirekin.

12 jokalari horiek izango dira txapelketan parte hartu ahal izango duten bakarrak, salbu eta ezinbesteko arrazoiengatik eta behar bezala justifikatuta, ordezkapena nahitaezkoa denean eta, nolana ere, txapelketa hasi baino lehen izango denean.

Eusko Jaurlaritzak Eskola Kirolaren arloan duen araudiaren arabera, Minibasket lehen urteko jokalariek ezin izango dute Euskadi eta Nafarroako Lurralde Selektzioen Txapelketetan parte hartu.

Txapelketa guztietan Nafarroako Saskibaloia Federazioak 15 jokalaria sartu ahal izango ditu triptikoan eta 12 aktan.

Euskadiko Saskibaloia Federazioak, dagokion dokumentazioa ikusita, aldaketa horiek baimendu ahal izango ditu lehiaketa hasi baino lehen.

Federazioek jokalariai hautatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak honako hauek izango dira:

1.- Jokalariak fitxa izapidetua duten klubeko federazioa.

2- Fitxa izapidetuta duten klubeko federazioak hautatzen ez dituen jokalariai federazioek aukeratu ahal izango dituzte, orden honen arabera:

1- Jokalariak bizilekua finkatuta duten federazioa.

2- Jokalariai jaio diren federazioa

Bakarkako eta Taldekako Dokumentazioa

Partida guztietan derrigorrezkoa izango da taldearen triptikoa eta taldeko kide guztien NANA edo banakako pasaportea (jatorrizkoa) aurkeztea.

8) EUSKO/NAFAR/ERRIOXAR GAZTE ETA KADETE MAILETAKO GIZON ETA EMAKUMEZKO KLUBEN TXAPELKETAKO OINARRI ZEHATZAK

8.1.- EGITURA

EUSKADIKO, NAFARROAKO eta ERRIOXAKO Federazio Autonomikoen artean itundutako Txapelketa honetan, Federazio Autonomiko horietako 12 taldek parte hartuko dute, kategoria bakoitzeko honako talde hauekin:

- Nafarroako Saskibaloï Federazioko 3 talde
